**PROGRAMA**

1125 EUSKADIKO AHOLKU-BATZORDE JURIDIKOA

**ARDURADUNA**

02 GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNUA

ARAUBIDE JURIDIKOAREN SAILBURUORDEA

## HELBURUA

1. KONTSULTA-EGINKIZUNA BETETZEA
2. KONTSULTA-EGINKIZUNA EZAGUTARAZTEA
3. BATZORDEAREN IRIZPENA JASO BEHAR DUTEN KONTSULTEN DOKUMENTAZIOA PRESTATZEA ETA BILKURETARAKO GAI-ZERRENDA LANTZEA
4. BATZORDEAK HARTUTAKO ERABAKIAK BETEARAZTEKO DOKUMENTUAK PRESTATZEA ETA BEHARREZKO IZAPIDEAK EGITEA

## BETETZE MAILA

### 1. KONTSULTA-EGINKIZUNA BETETZEA

2017.an, 234 kontsulta-eskari sartu dira kontsulta-organo honen idazkaritzan. Horietatik 21 itzuli dira, organo kontsulta-egileak berak eskatuta batzuk, eta Batzordearen ekimenez beste batzuk (garrantzizko hutsuneak ikusi direlako espedienteen tramitazioan, eskariek forma-akatsak zituztelako, edota batzordearen eskumenekoak ez zirelako). Era berean, 45 idazki jaso dira, bidalitako espedienteen dokumentazioa osatze aldera, baita 182 jakinarazpen edo komunikazio ere, irizpena jaso duen gaian emandako behin betiko ebazpenaren berri emateko.

Batzordeak, bere aldetik, dokumentazioa zabaltzeko 7 eskari izapidetu ditu, izapidetzeko onartu diren kontsultak direla eta.

### 2. KONTSULTA-EGINKIZUNA EZAGUTARAZTEA

2016. urteko memoria prestatu da, eta formatu elektronikoan bakarrik editatu; hain zuzen ere, Batzordearen web orriaren bitartez jarri da herritarren eta erakunde publikoen esku.

***PROGRAMA***

*1125 COMISIÓN JURÍDICA ASESORA DE EUSKADI*

***RESPONSABLE***

*02 GOBERNANZA PÚBLICA Y AUTOGOBIERNO*

*VICECONSEJERO DE RÉGIMEN JURÍDICO*

## *OBJETIVO*

*1. EJERCICIO DE LA FUNCIÓN CONSULTIVA*
*2. DIVULGACIÓN DE LA FUNCIÓN CONSULTIVA*
*3. PREPARACIÓN DE LA DOCUMENTACIÓN DE LAS CONSULTAS A DICTAMINAR POR LA COMISIÓN Y ELABORACIÓN DE LOS ÓRDENES DEL DÍA DE SUS SESIONES*
*4. PREPARACIÓN DE LOS DOCUMENTOS Y REALIZACIÓN DE LOS TRÁMITES NECESARIOS PARA LA EJECUCIÓN DE LOS ACUERDOS ADOPTADOS POR LA COMISIÓN*

## *GRADO DE CUMPLIMIENTO*

### *1. EJERCICIO DE LA FUNCIÓN CONSULTIVA*

*Durante 2017 han tenido entrada en la secretaría de este órgano consultivo 234 solicitudes de consultas. De ellas 21 fueron devueltas, ya sea por propia solicitud del órgano consultante o a iniciativa de la propia Comisión (al detectar importantes carencias en la tramitación de los expedientes, por defectos formales en la solicitud o por no ser de su competencia). Asimismo se han recibido 45 escritos ampliando la documentación de los expedientes remitidos y 182 comunicaciones de la resolución definitiva recaída en el asunto dictaminado.*

*Por su parte, la Comisión ha tramitado 7 solicitudes de ampliación de documentación relacionadas con las consultas admitidas a trámite.*

### *2. DIVULGACIÓN DE LA FUNCIÓN CONSULTIVA*

*Se ha preparado y editado únicamente en formato electrónico la memoria del año 2016, poniéndola a disposición de la ciudadanía y de las instituciones públicas a través de la Web de la Comisión.*

**3. BATZORDEAREN IRIZPENA JASO BEHAR DUTEN KONTSULTEN DOKUMENTAZIOA PRESTATZEA ETA BILKURETARAKO GAI-ZERRENDA LANTZEA**

Batzordearen osoko bilkurak 40 saio egin ditu: gai-zerrendak egin dira, eta dagokion dokumentazioa prestatu, baita batzordeko kideei banatu ere.

***3. PREPARACIÓN DE LA DOCUMENTACIÓN DE LAS CONSULTAS A DICTAMINAR POR LA COMISIÓN Y ELABORACIÓN DE LOS ÓRDENES DEL DÍA DE SUS SESIONES***

*Se han elaborado los órdenes del día, y se ha preparado y repartido a los miembros de la Comisión la documentación correspondiente, para las 40 sesiones que ha celebrado el Pleno.*

**4. BATZORDEAK HARTUTAKO ERABAKIAK BETEARAZTEKO DOKUMENTUAK PRESTATZEA ETA BEHARREZKO IZAPIDEAK EGITEA**

Onartu eta jakinarazitakoak: 5 erabaki eta 230 irizpen (22, xedapen orokorrei buruzkoak, eta 208, berriz, administrazio-egintzen gainekoak).

***4. PREPARACIÓN DE LOS DOCUMENTOS Y REALIZACIÓN DE LOS TRÁMITES NECESARIOS PARA LA EJECUCIÓN DE LOS ACUERDOS ADOPTADOS POR LA COMISIÓN***

*Se han aprobado y notificado 5 acuerdos y 230 dictámenes: 22 sobre disposiciones generales y 208 sobre actos administrativos.*

| PROGRAMA | *PROGRAMA* |
|---|---|
| 1211 GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNUKO EGITURA ETA LAGUNTZA | *1211 ESTRUCTURA Y APOYO DE GOBERNANZA PÚBLICA Y AUTOGOBIERNO* |
| **ARDURADUNA** | ***RESPONSABLE*** |
| 02 GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNUA | *02 GOBERNANZA PÚBLICA Y AUTOGOBIERNO* |
| GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNUA SAILBURUA | *CONSEJERO DE GOBERNANZA PÚBLICA Y AUTOGOBIERNO* |

| HELBURUA | *OBJETIVO* |
|---|---|
| 1. SAILBURUAREN KANPO-HARREMANAK ETA SAILBURU ETA GOBERNUKO BOZERAMAILE GISA GIZARTE-KOMUNIKABIDEEKIN DITUEN HARREMANAK | *1. RELACIONES EXTERNAS DEL CONSEJERO, Y RELACIONES CON LOS MEDIOS DE COMUNICACIÓN SOCIAL EN SUS FUNCIONES DE CONSEJERO Y PORTAVOZ DE GOBIERNO* |
| 2. SAILAREN AURREKONTUEN AURREPROIEKTUA EGITEA ETA AURREKONTU HORREN KUDEAKETAZ ETA JARRAIPENAZ ARDURATZEA | *2. ELABORACIÓN DEL ANTEPROYECTO DE PRESUPUESTOS DEL DEPARTAMENTO, GESTIÓN Y SEGUIMIENTO DE SU EJECUCIÓN* |
| 3. AHOLKULARITZA ETA KOORDINAZIO JURIDIKOA | *3. ASESORÍA Y COORDINACIÓN JURÍDICA* |
| 4. ZUZENDARITZEI AHOLKUAK EMATEA EGITEN DITUZTEN ADMINISTRAZIO-KONTRATAZIOETAN | *4. PRESTACIÓN DE ASESORAMIENTO A LAS DIRECCIONES EN LAS CONTRATACIONES ADMINISTRATIVAS QUE REALICEN* |
| 5. LANGILEEN ADMINISTRAZIOA ETA KUDEAKETA | *5. ADMINISTRACIÓN Y GESTIÓN DE PERSONAL* |
| 6. INFORMAZIOAREN TEKNOLOGIAK SAILAREN BEHARRETARA EGOKITZEA | *6. ADECUACIÓN DE LAS TECNOLOGÍAS DE LA INFORMACIÓN A LAS NECESIDADES DEPARTAMENTALES* |
| 7. SAILAREN ANTOLAKETAREN, BALIABIDEEN ETA EGINKIZUN KOMUNEN INGURUKO LAGUNTZA ETA KOORDINAZIOA | *7. COORDINACIÓN Y APOYO EN MATERIAS DE ORGANIZACIÓN, MEDIOS Y FUNCIONES DE NATURALEZA COMÚN, DEL DEPARTAMENTO* |
| 8. SAILEAN EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEA | *8. FOMENTAR EL USO DEL EUSKERA EN EL DEPARTAMENTO* |
| 9. SAILEAN BERDINTASUNERAKO POLITIKAK SUSTATZEA ETA KOORDINATZEA ETA BESTE ZUZENDARITZA ETA ARLO BATZUEKIN LANKIDETZAN JARDUTEA 4/2005 LEGEA ETA X. LEGEALDIKO BERDINTASUNERAKO PLANA GAUZATZEKO | *9. IMPULSO Y COORDINACIÓN DE LAS POLÍTICAS DE IGUALDAD EN EL DEPARTAMENTO Y COLABORACIÓN CON DIRECCIONES Y ÁREAS PARA EJECUCIÓN LEY 4/2005 Y PLAN DE IGUALDAD DE X LEGISLATURA* |
| 10. ESTATISTIKA-ERAGIKETAK | *10. OPERACIONES ESTADÍSTICAS* |

## BETETZE MAILA

### 1. SAILBURUAREN KANPO-HARREMANAK ETA SAILBURU ETA GOBERNUKO BOZERAMAILE GISA GIZARTE-KOMUNIKABIDEEKIN DITUEN HARREMANAK

2017ko ekitaldian, sailburuak, bere taldearekin batera, komunikabideen aurreko agerraldia prestatu du, Gobernu Kontseiluaren 48 ohiko bileretan jorratu dituzten gaien berri emateko.

Eusko Jaurlaritzaren bozeramaile izanik, 2017an 85 aldiz agertu da komunikabideen aurrean. Agerraldietan Gobernuaren politikak azaldu ditu, beraren eskumeneko gai guztiei lotuta.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburua den aldetik, 99 esku-hartze publiko izan ditu, eta Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko jarduerak azaldu eta hedatu ditu (Lege Biltzarraren ohiko bilkurak eta kontrol-bilkurak barne hartuta).

Lan horri gehitu behar zaizkio irratian eta telebistan egin diren 35 elkarrizketa, bai eta egunkarietarako eta aldizkarietarako egin diren 10 elkarrizketa gehiago ere.

### 2. SAILAREN AURREKONTUEN AURREPROIEKTUA EGITEA ETA AURREKONTU HORREN KUDEAKETAZ ETA JARRAIPENAZ ARDURATZEA

Aurreko urteetan bezala, urtarrilean, 2016. urteko helburuen betetze-mailari buruzko memoriak egin ziren, saileko zerbitzuekin koordinatuta.

2017ko bigarren seihilekoan, 2018ko ekitaldiko aurrekontuen aurreproiektua egiteko prestalanak egiten hasi ziren.

Aurrekontua betetzeko, eta haren jarraipena eta kontrola egiteko, oinarrizkoa izan da gastu-zentroetako arduradunek eta Zerbitzuetako Zuzendaritzako arduradunek ondo koordinatzeko egin duten lana, sailen betetze-maila oro har aztertu baitute, sailean sortutako kontabilitateko agiri guztiak izapidetuz, eta dagoen informatikako aplikazioaren bidez (IKUS eta FOAS aplikazioen bidez) datuak sartuz eta aztertuz.

Horretarako arauetan eskatzen diren fitxategiak eta erregistroak eraman dira: fakturen fitxategia, gastuen erregistroa, transferentzien zerrenda...

### 3. AHOLKULARITZA ETA KOORDINAZIO JURIDIKOA

2017an 211 gai jorratu dira aholkularitza juridikoan. Hona hemen gai batzuk jorratzeko xedeak: haietako 4, dekretu-

## *GRADO DE CUMPLIMIENTO*

### *1. RELACIONES EXTERNAS DEL CONSEJERO, Y RELACIONES CON LOS MEDIOS DE COMUNICACIÓN SOCIAL EN SUS FUNCIONES DE CONSEJERO Y PORTAVOZ DE GOBIERNO*

*A lo largo del ejercicio del 2017 el Consejero en colaboración con su equipo ha preparado la comparecencia ante los medios de comunicación, para informar sobre los temas tratados en las 48 ocasiones en que se ha reunido el Consejo de Gobierno en sus Sesiones Ordinarias.*

*En su calidad de Portavoz del Gobierno y a lo largo del año 2017 ha comparecido ante los medios de comunicación en 85 ocasiones explicando las políticas del Gobierno en todas aquellas materias que son de su competencia.*

*En su calidad de Consejero de Gobernanza Pública y Autogobierno ha tenido 99 intervenciones públicas explicando y divulgado las actuaciones del Departamento del que es titular (incluidos los Plenos Ordinarios y de Control del Parlamento Vasco).*

*Esta labor divulgativa se ha visto reforzada con las 35 entrevistas realizadas en radio y televisión y en otras 10 entrevistas realizadas en prensa escrita en Diarios y Revistas.*

### *2. ELABORACIÓN DEL ANTEPROYECTO DE PRESUPUESTOS DEL DEPARTAMENTO, GESTIÓN Y SEGUIMIENTO DE SU EJECUCIÓN*

*Durante el mes de enero se procedió, como en años anteriores, a la confección de las memorias del grado de cumplimiento de los objetivos programados para 2016, todo ello en coordinación con los diversos servicios del departamento.*

*En el segundo semestre del ejercicio 2017 se iniciaron los trabajos preparatorios para la elaboración del Anteproyecto de Presupuestos para el ejercicio 2018.*

*La ejecución, seguimiento y control del presupuesto se ha basado principalmente en una buena coordinación entre los distintos responsables de los centros de gastos y de la Dirección de Servicios, quienes han tenido una visión global de la ejecución departamental, gracias a la tramitación de toda la documentación contable generada en el departamento y a la introducción y análisis de sus datos a través de las aplicaciones informáticas existentes (IKUS y FOAS).*

*Los archivos y registros que se han llevado, son los que exigen las normas dictadas a tal efecto: archivo de facturas, registro de gastos, relación de transferencias,…*

### *3. ASESORÍA Y COORDINACIÓN JURÍDICA*

*Durante 2017 han tenido entrada en la asesoría jurídica 211 asuntos. De ellos 4, han tenido por objeto la*

proiektuei buruzko txosten juridikoak egiteko; 4, diru-laguntza izendunak emateko aginduei buruzko txosten juridikoak egiteko; 25, beste agindu mota bati buruzkoak; Gobernu Kontseiluaren akordio-proposamen bat, zuzeneko diru-laguntza bat emateko; 12, Gobernu Kontseiluaren hainbat ekimeni buruzko akordio-proposamenak egiteko; 9, sail honek EJIE enpresa publikoari eta IZENPE partaidetzako enpresari egin dizkien kudeaketa-gomendioei buruzko txosten juridikoak egiteko; behin, Eusko Jaurlaritzako beste sail batzuen araugintza-proposamenak aztertu dira, baina ez dira haiei buruzko alegaziorik egin; 19, lankidetza-hitzarmenen sinadurari lotutako txostenak egiteko; 12, gora jotzeko errekurtsoei edo eskaerei buruzko aginduak edo ebazpenak emateko; 8, saileko ordezkariak kide anitzeko organoetan izendatzeko txostenak egiteko; gainerako 116 gaietan, sailetako zuzendaritzek gai zehatzei buruzko aholkularitza juridikoa eman da.

*elaboración de informes jurídicos sobre proyectos de Decreto; 4 han sido informes jurídicos sobre Órdenes de concesión de subvenciones nominativas; 25 en otro tipo de Órdenes; 1 propuesta de Acuerdo del Consejo de Gobierno sobre concesión de subvención directa; 12 acerca de propuestas de Acuerdo del Consejo de Gobierno sobre iniciativas de diversa índole; 9 han sido informes jurídicos sobre encomiendas de gestión realizadas desde este Departamento a la empresa pública EJIE, y a la participada IZENPE; en 1 ocasión se han analizado iniciativas normativas de otros Departamentos del Gobierno sin haber realizado alegaciones a las mismas; 19 han sido informes elaborados con ocasión de la suscripción de convenios de colaboración; 12 han sido Órdenes o Resoluciones a recursos de alzada y solicitudes presentadas; 8 han sido expedientes de designación de representantes del Departamento en órganos colegiados; en los restantes 116 asuntos se ha prestado asesoramiento jurídico sobre cuestiones puntuales planteadas por las Direcciones del Departamento.*

## 4. ZUZENDARITZEI AHOLKUAK EMATEA EGITEN DITUZTEN ADMINISTRAZIO-KONTRATAZIOETAN

Kontratazioaren esparruan, aholkularitza juridikoa eman dugu, saileko kontratazio-mahaiko idazkari izan gara, eta zuzendaritzek hasitako kontratazio-espedienteak izapidetu, eta esleitu ditugu, haien formalizazioa barne. Zerbitzu hori Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko Zuzendaritzako kontratazio-organoarentzat egin dugu. Zehazki, zerbitzuak kontratatzeko espediente baten kontratazio administratiboa egin dugu. Horrez gain, 22 kontratu txiki ere egin ditugu. Haietako bat horniketa-kontratua izan da, eta gainerako 21 kontratuak zerbitzu-kontratuak izan dira.

## *4. PRESTACIÓN DE ASESORAMIENTO A LAS DIRECCIONES EN LAS CONTRATACIONES ADMINISTRATIVAS QUE REALICEN*

*En el ámbito de la contratación, se ha desarrollado la función de asesoramiento jurídico y secretaría de la mesa de contratación del departamento, y se ha tramitado, adjudicado, incluida su formalización, para el correspondiente órgano de contratación ubicado en la Dirección de Servicios del Departamento de Gobernanza Pública y Autogobierno, los expedientes de contratación instados por las distintas direcciones, habiéndose realizado la contratación administrativa de 1 expediente de contratación de servicios. Además, se han tramitado 22 contratos menores, de los cuales 1 ha sido de suministros y los otros 21 de servicios.*

## 5. LANGILEEN ADMINISTRAZIOA ETA KUDEAKETA

Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailean 494 langilek jarduten dute; hortaz, langileria administratzeko, txosten ugari izapidetu behar izan dira: lanpostuak betetzeko, lizentziak eta baimenak emateko, langileek egindako galderei erantzuteko, Funtzio Publikoko Sailburuordetzak kudeatzen dituen hainbat prozesutan elkarlana egiteko (besteak beste, duela gutxi ezarri diren SAP modulu batzuen jarraipena egiteko), etab.

## *5. ADMINISTRACIÓN Y GESTIÓN DE PERSONAL*

*La administración de la plantilla de personal del Departamento de Gobernanza Pública y Autogobierno, que hace un total de 494 personas, han supuesto la tramitación de un gran número de expedientes de provisión de puestos, licencias y permisos, atención a las consultas formuladas por la plantilla, colaboración en diferentes procesos gestionados por la Viceconsejería de Función Pública, entre ellos el seguimiento, como usuario, del funcionamiento de varios módulos de Sap recientemente implantados, etc.*

## 6. INFORMAZIOAREN TEKNOLOGIAK SAILAREN BEHARRETARA EGOKITZEA

Atal honen barruan, 679 erabiltzaileren informatika-beharrizanak kudeatu ditugu, eta zeregin profesionalak burutzeko behar zituzten ekipoak eman zaizkie. Ekipo horietatik (ordenagailuak, inprimagailuak, eskanerrak,...), 902 eskuratu dira renting-kontratu baten bitartez, Eusko

## *6. ADECUACIÓN DE LAS TECNOLOGÍAS DE LA INFORMACIÓN A LAS NECESIDADES DEPARTAMENTALES*

*Dentro de este apartado se han gestionado las necesidades informáticas de 679 usuarios, proporcionándoles los equipos necesarios para la realización de sus tareas profesionales. De estos equipos (ordenadores, impresoras, escáner,…), 902 han sido*

Jaurlaritzak EJIEri egin dion agindu orokorraren barruan baitago. Zortzi ekipo, berriz, sailak ditu jabetzan.

Atal honetan EJIEko talde baten laguntza teknikoa jaso dugu, Eusko Jaurlaritzak EJIEri egin dion enkargu orokorraren bitartez. Talde horrek EJIEko zerbitzarietan dauden saileko aplikazioen mantentze-lan zuzentzailea eta bilakaera-lana egin ditu.

Eusko Jaurlaritzaren Enkargu Orokorra egiteaz gain, EJIEri egin zaizkion lau agindu gehiago formalizatu ditugu Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailean, honako sail hauetan laguntza teknikoa emateko: SAP eta Giza Baliabideen arloetan (bi agindu), liburutegien sarean eta dokumentu elektronikoak kudeatzeko arloan.

*proporcionados a través del renting incluido en el Encargo General del Gobierno a EJIE y otros 8 equipos son propiedad del propio Departamento.*

*En este apartado y por medio de la Encargo General del Gobierno a EJIE, hemos contado con un grupo de Asistencia Técnica de EJIE que se han encargado del mantenimiento correctivo y evolutivo de las aplicaciones departamentales albergadas en los servidores de EJIE.*

*Además del Encargo General del Gobierno, el Departamento de Gobernanza Pública y Autogobierno ha formalizado otros cuatro Encargos a EJIE para dar soporte técnico en las áreas de SAP-Recurso humanos (2 encargos), Red de Bibliotecas y Gestión de documentos electrónicos.*

## 7. SAILAREN ANTOLAKETAREN, BALIABIDEEN ETA EGINKIZUN KOMUNEN INGURUKO LAGUNTZA ETA KOORDINAZIOA

Arlo horretan, 2017ko ekitaldian sortu diren eskaera guztiak izapidetzeko lanak koordinatu ditugu, saileko beste zuzendaritza batzuekin batera. Eskaerak, besteak beste, altzariei, informatikoak ez ziren tresna batzuei, ibilgailuei, lekuei, telefonoei eta zehaztu gabeko hainbat gairi buruzkoak izan dira.

Langileen prestakuntzaren arloan IVAPek eta beste erakunde publikoek zein pribatu batzuek antolatzen dituzten ikastaroak, jardunaldiak, mintegiak eta abarrak koordinatu ditugu.

## *7. COORDINACIÓN Y APOYO EN MATERIAS DE ORGANIZACIÓN, MEDIOS Y FUNCIONES DE NATURALEZA COMÚN, DEL DEPARTAMENTO*

*En este ámbito se ha coordinado, en colaboración con otras direcciones de este departamento, los trabajos necesarios con el fin de dar trámite a todas las peticiones internas, generadas durante el ejercicio 2017, de organización de mobiliario, equipamiento no informático, vehículos, espacio, telefonía y otros medios materiales sin especificar.*

*En lo que respecta a la formación del personal, se ha coordinado y gestionado los cursos, jornadas, seminarios, etc., convocados por el IVAP o por otras entidades, tanto públicas como privadas.*

## 8. SAILEAN EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEA

Hizkuntzen erabilera normalizatzeko lana egiten jarraitu dugu sailean, euskararen erabilera normalizatzeko planaren V. aldian ezarritako gidalerroen arabera. Batetik, IVAPen, tutoreen eta ikasleen arteko bitartekotza-lana egiten jarraitu dugu; eta, bestetik, ekintza zehatzen kudeaketa, izapidetzea eta jarraipena ere egin dugu.

IVAPek antolatzen dituen ikastaroei buruzko informazioa langileei eman diegu. Ikastaroak hizkuntzen erabileraren normalizazioari eta hizkuntzen garapenari buruzkoak izan dira. Horrez gain, ikastaroetan izena emateko laguntza ere eman diegu (matrikula, epeak eta abarrak).

Ildo horretatik, IVAPen ikastaroen koordinazioari eta kudeaketari lotuta, hizkuntzen normalizazio orokorrari buruzko 43 espediente kudeatu ditugu. Haietatik 26 onartu egin dira: 11, lan-ordutegian; eta 15, lan-ordutegitik kanpo. Era berean, 40 langilek egin dituzte IVAPek eskaini dituen beste ikastaro batzuk. Ikastaroak, besteak beste, birziklatzeari eta hizkuntza-eskakizunen prestakuntzari buruzkoak izan dira. IVAPek prestakuntza orokorrari buruz euskaraz eskaintzen dituen ikastaroei dagokionez, 11 langilek euskarazko ikastaroak egin dituzte.

## *8. FOMENTAR EL USO DEL EUSKERA EN EL DEPARTAMENTO*

*Se ha continuado con el impulso a la normalización lingüística en el Departamento, siguiendo las directrices marcadas por el Plan de Normalización del Uso del Euskera en su V Período de Planificación. Se ha continuado con el trabajo de intermediación entre el IVAP, los tutores y los alumnos, por un lado, y mediante la gestión, tramitación y seguimiento de diferentes acciones concretas.*

*Se ha seguido dando la correspondiente información a los trabajadores sobre los cursos organizados por el IVAP, tanto de normalización lingüística general como de desarrollo lingüístico, y se ha realizado la correspondiente labor de asesoramiento respecto de los cursos (matriculación, fechas etc.).*

*Así, referido a la coordinación y gestión de cursos del IVAP, se han gestionado 43 expedientes de cursos de normalización lingüística general, de los cuales han sido 26 los admitidos: 11 en horario laboral y 15 fuera de él. De la misma forma, han asistido un total de 40 trabajadores a otros cursos ofertados por el IVAP referidos al proceso de desarrollo lingüístico (cursos de reciclaje, preparación para exámenes de perfil lingüístico...). En cuanto a los cursos de formación general ofertados en euskera por el IVAP, han sido 11 los trabajadores que los han hecho en el referido idioma.*

«Euskararen erabilera normalizatzeko plana» 2013-2017 garatzen jarraitu dugu. Lan horretan ELHUYAR Fundazioko teknikarien aholkularitza jaso dugu.

*Se ha continuado con el "Plan de Normalización del uso del euskera" del Departamento, para el período 2013-2017, para lo que se ha contado con la consultoría de los técnicos de la empresa ELHUYAR.*

Normalizazioak eragiten dien unitateetan bilerak egin ditugu: urtean lortu behar diren helburuak ezartzeko eta, horrez gain, helburu horiek garatzeko egin behar diren jarduketak zehazteko ere bai.

*Continuando con la labor de normalización en las unidades afectadas, se han realizado distintas reuniones de cara a fijar los objetivos a realizar durante el año y ver las posibles actuaciones a realizar en cada unidad a fin de lograr dichos objetivos.*

Eusko Jaurlaritzako sailak berriro egituratu direnez, Artxibo, Liburutegi eta Argitalpen Zerbitzua sail honetara itzuli da. Zerbitzu hori lehen beste sail batean zegoen, eta sail horretan bi jarduera egiten ziren; beraz, gaur egun, gure sailean arduratzen gara bi jarduera horietaz. Alde batetik, Errioxako Unibertsitateak sortu duen giza zientzietan eta gizarte-zientzietan espezializatutako DIALNET plus webgunea euskaratzen ari gara. Bertan hispaniar ekoizpen zientifikoa zabaltzen da. Bien arteko korrelazioa dela-eta, DOCUMAT ataria ere euskaratzen ari gara. Mota berekoa da, baina matematikari buruz. Bestetik, fitxategien kudeaketa-sistemako erregistroen epigrafeak berrikusten eta itzultzen ari gara. Kasu batean eta bestean zerbitzuko teknikariek itzultzen dituzte testuak, normalizaziorako teknikariaren gidaritzapean.

*Como consecuencia de la reestructuración de los departamentos del Gobierno Vasco, el Servicio de Archivo, Biblioteca y Publicaciones vuelve a pertenecer a este Departamento. En dicho Servicio, en el departamento en el que antes se hallaba ubicado, se venían realizando dos actividades distintas que ahora han pasado a ser responsabilidad de este Departamento. Por un lado, se está procediendo a traducir al euskera el portal de difusión de la producción científica hispana especializado en ciencias humanas y sociales denominado DIALNET plus, creado por la Universidad de la Rioja. Aprovechando la correlación entre ambos, también se está traduciendo el portal DOCUMAT, que es lo mismo pero referido a la matemática. Por otro lado, se está procediendo a la revisión y traducción de los epígrafes de los registros del Sistema de Gestión de Archivos. En cada caso, son los propios técnicos del Servicio los que realizan las traducciones, bajo la dirección del Técnico de Normalización.*

Horren harira, nabarmentzekoa da honako jarduketa hau: Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzako administrazio-erregistroetan egin dena, UPV/EHUko Soziolinguistika Klusterrarekin batera. Jarduera EUSLE deitzen da, zehatz-mehatz. Unitate horretako zuzendariarekin bilerak egin ditugu, bai eta unitate horretako langileekin ere. Horrez gain, Donostiako UPV/EHUko campusean prestakuntza-saio batera joan gara, Soziolinguistika Klusterrak emanda. Ondoren, unitate horrekin beste bilera bat egin genuen, jarduera gauzatze aldera. Jardueraren lehen zatia amaituta, beste bilera bat egin zen. Argazkia ere atera genuen eta BAGOAZ buletinean argitaratu genuen. Jarduera horren bigarren zatia eta emaitzak 2018ko lehen hiruhilekoan egingo ditugu.

*Entre las actuaciones llevadas a cabo, destaca la realizada en la Dirección de Relaciones con las Administraciones Locales y Registros Administrativos, concretamente en la unidad de Registros Administrativos, en colaboración con el denominado Soziolinguistika Klusterra de la UPV/EHU. En concreto, la actividad se denomina EUSLE. Hemos llevado a cabo reuniones con la directora responsable de la unidad, así como con los trabajadores de dicha unidad. También asistimos a una reunión de formación en el Campus de la UPV/EHU de San Sebastián, impartida por el mencionado clúster. Posteriormente, se convocó otra reunión con la unidad para llevar a cabo la actividad. Finalizada la primera parte de la actividad, se convocó una reunión donde se sacó una foto para su publicación en el boletín BAGOAZ. La segunda parte y las conclusiones de dicha actividad se realizarán en el primer trimestre de 2018*

Euskara Zerbitzuak bi jarduera pilotutan parte hartu du, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak zuzenduta. Lehen jardueran komunikazio-lehentasunen mapa prestatzeko galdera-sorta egin da. Gaiarekin zerikusia duten hainbat bilera gauzatu dira.

*El Servicio de Euskera ha tomado parte en dos actividades piloto, dirigidas por la Viceconsejería de Política Lingüística. La primera de ellas ha tenido como objetivo la confección de un formulario con el objeto de realizar el Mapa de las Prioridades Comunicativas. Se han realizado varias reuniones para ello.*

Bigarren jarduerari Pilotajea deitu zaio, eta helburua euskarazko komunikazioa Berdintasun Sailean bultzatzea izan da. Horretarako, bilera bat egin da, eta Berdintasun teknikariak txosten bat bete du.

*La segunda, denominada Pilotaje para la promoción de las comunicaciones en euskera en el Área de Igualdad, ha consistido en una reunión y la cumplimentación de un formulario, por parte de la Técnico de Igualdad del Departamento.*

Intraneten eta Interneteko web-orrien jarraipena eta zuzenketa egiten jarraitu dugu, beharrezkoa izan denean. Horrez gain, sailaren erantzukizunpean Interneten erakusten denaren jarraipena ere egin dugu.

*Continuamos con la labor de seguimiento y corrección, cuando así es necesario, de las páginas Web y de la Intranet así como de todo lo expuesto en Internet, en lo que refiere a la responsabilidad del Departamento.*

Sailen egitura berrien ondorioz, Baliabide Orokorren Zuzendaritzarekin batera saileko informazio-kartelak egokitzeko lana egin dugu.

*Como consecuencia de la reestructuración departamental, hemos colaborado con la Dirección de Recursos Generales en la adecuación de los letreros de información departamentales.*

Horrez gain, BAGOAZ buletina banatzeko jardueran ere parte hartu dugu. Buletina ELHUYAR aholkulariak egin du.

*También se ha tomado parte en la distribución del Boletín BAGOAZ, confeccionado por la consultora Elhuyar.*

Euskara Zerbitzuak Euskararen egunean parte hartu du, saila ordezkatuz.

*El Servicio de Euskera también ha participado en el Euskararen Eguna, en representación del Departamento.*

Era berean, IVAPekin batera, EUSKARATU ekimena lantzen ari gara.

*Del mismo modo, se está colaborando con el IVAP en una iniciativa denominada EUSKARATU.*

Bestalde, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzarekin programatuta geneuzkan hileko bilerak egiten jarraitu dugu. Halaber, hizkuntzen erabilera normalizatuaren arloan jarduten duten teknikarien lantaldeko hileko bilerak ere egin dira.

*Por otro lado, se han mantenido las reuniones mensuales programadas con la Viceconsejería de Política Lingüística. También se han llevado a cabo las reuniones mensuales dentro del Grupo de Trabajo de los técnicos de normalización lingüística.*

Ohikoa denez, Normalizazio Planaren jarraipen-txostenak egin ditugu, eta hizkuntza-profilen eta derrigortasun-egunen jarraipena ere egin dugu, aldaketa-proposamenekin batera.

*Como es habitual, se ha realizado los pertinentes informes de seguimiento del Plan de Normalización y se ha continuado con el seguimiento de los perfiles lingüísticos y sus fechas de preceptividad, realizando propuestas para su modificación.*

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak eskatuta, «V. Plangintza-aldiaren amaierako ebaluazioa - Saileko inprimakia» izeneko inkesta egiten amaitu da. SIADECO enpresak bidali du. Gainera, langileak identifikatu eta jakinaren gainean jarri ditugu, SIADECO enpresak «V. Plangintza-aldiaren amaierako ebaluazioa - Saileko inprimakia» izeneko inkesta banatu ahal izan zezan.

*A petición de la Viceconsejería de Política Lingüística, se ha cumplimentado la encuesta "Evaluación Final del V Período de Planificación - Formulario para el departamento", enviada por la empresa SIADECO. Además, a fin de que la mencionada empresa SIADECO pudiera distribuir la "Evaluación Final del V Período de Planificación - Formulario para el departamento", hemos identificado e informado a los trabajadores.*

Bestalde, bi urtean behin egiten dugun bezala, «Euskara sustatzeko giza baliabideen, aurrekontuen eta diru-laguntzen 2016ko estatistika» osatzeko galdera-sorta bete da. SIADECO enpresak egiten du.

*Por otro lado, como cada dos años, se ha cumplimentado el formulario "Estadística 2016 de los recursos humanos, presupuestos y subvenciones destinados a la promoción del euskera", realizada por la empresa SIADECO.*

2017an egin ditugun jarduketen memoria ere egin dugu.

*Así mismo, se ha realizado la memoria de las actuaciones llevadas a cabo durante el año 2017.*

Prestakuntzaren osagai gisa, Euskara Zerbitzuak «Bost minutuko ikastaroa» bidaltzen die egunero saileko langile guztiei, posta elektronikoz.

*Como complemento a la formación, el Servicio de Euskera divulga diariamente, mediante correo electrónico, a todos los trabajadores del Departamento, la unidad educativa denominada "Bost minutuko ikastaroa".*

Itzulpen-zerbitzuan bi testu gaztelaniara itzuli dira, guztira 950 hitz; eta 271 testu euskaratu dira, guztira 41.999 hitz. Horrez gain, 105 agiri zuzendu dira, 78.500 hitz inguru. Saileko langileen zalantzak erantzun eta haiek eskatu dituzten zuzenketak ere egin dira.

*En lo referido al servicio de traducción se ha realizado la traducción de dos documentos al castellano, unas 950 palabras; y alrededor de 271 documentos del castellano al euskera, es decir, unas 41.999 palabras. Se han corregido otros 105 documentos, que suponen alrededor de 78.500 palabras, y se han atendido las dudas y correcciones solicitadas por los trabajadores del Departamento.*

## 9. SAILEAN BERDINTASUNERAKO POLITIKAK SUSTATZEA ETA KOORDINATZEA ETA BESTE ZUZENDARITZA ETA ARLO BATZUEKIN LANKIDETZAN JARDUTEA 4/2005 LEGEA ETA X. LEGEALDIKO BERDINTASUNERAKO PLANA GAUZATZEKO

## *9. IMPULSO Y COORDINACIÓN DE LAS POLÍTICAS DE IGUALDAD EN EL DEPARTAMENTO Y COLABORACIÓN CON DIRECCIONES Y ÁREAS PARA EJECUCIÓN LEY 4/2005 Y PLAN DE IGUALDAD DE X LEGISLATURA*

2017. urtean 2016ko Berdintasun Programaren emaitzen ebaluazioa egin da sailean. Horretarako, esku-hartzeen ardatzei buruzko 26 fitxa bete, Gobernantzari buruzko

*Durante 2017 se ha llevado a cabo la Evaluación Departamental de Resultados sobre el Programa para la Igualdad 2016, con la cumplimentación de 26 fichas de*

galdera-sorta bat egin, oharren gaineko txosten bat osatu eta 10 kontraste-bilera egin dira. Gainera, Emakunderekin koordinatuta, 2015eko Jarraipen Txostenean ekarpenak egin dira.

Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko 2017ko Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasun Programa egin da. Horretarako, 9 kontraste-bilera antolatu, eta 11 plangintza-fitxa egin dira.

Prozesu biak saileko talde teknikoaren bidez antolatu dira. Helburua sailean berdintasunaren plangintza bultzatzea eta koordinatzea izan da. Taldeko lau bilera egin, eta zazpi txosten osatu dira.

Genero-ikuspegia sustatzeko eta sartzeko eta emakumeen eta gizonen berdintasun-arloari buruzko aholkularitza teknikoa eman zaie saileko langileei eta sailera atxikita dauden sozietate publikoko arduradunei: 27 txosten berrikusi dira, aholkularitza emateko 15 txosten osatu, eta 5 bilera egin dira.

2017an, Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko I. plana ezartzen hasi da. Horretarako, 2017-2018 Kudeaketa Plana egin da, 3 aholkularitza-txosten osatu dira, eta 10 dokumentu berrikusi dira, 20 bileratan. 5 bilera Batzorde Iraunkorrekin egin dira; eta gainerako 15 bilerak, barneko lantaldearekin.

Gainera, saileko aurrekontuen memorietan genero-ikuspegia txertatzea sustatu dugu. Zehazki, honela: aurrekontuak genero-ikuspegiarekin egiteko ikastaro batean parte hartu dute lau pertsonak; saileko zuzendaritza guztiekin bilera bat egin da; eta Berdintasun Unitatearen eta Zerbitzu Zuzendaritzaren arteko 9 bilera egin dira, koordinazioa eta prestalanak egiteko. Gainera, memoria bat berrikusi eta egin da. Horrez gain, bi inprimaki bete dira, sailetako zuzendaritzen eta IVAPen 11 memoria eta 10 inprimaki berrikusi dira.

2018ko aurrekontuen eraginaren ebaluazioari buruzko txostenaren harira, Ogasun eta Ekonomia Sailarekin lan egin dugu, aipatutako 12 inprimakiren bidez. Horrez gain, ekarpenak egin dira inprimaki horretan.

Saileko langileei animatu zaie Administrazio Orokorreko Berdintasun arloko 2017ko Prestakuntza-planari eta Gizonduz 2017ko Programari lotutako prestakuntza-ekintzetan parte hartzera.

EAEko VII. Berdintasun Plana kontrastatze aldera, elkarlana egin dugu Emakunderekin. Zehazki, eztabaida-talde batean parte hartu dugu, eta txosten bat ere egin dugu. Horrez gain, txosten bat aurkeztuta eta bilera bat eginda, Euskal Estatistika Planean ekarpenak egin ditugu, EUSTATekin koordinatuta.

Erakundearteko talde teknikoarekin bilera bat egin dugu, eta sailarteko talde teknikoarekin lau bilera egin ditugu. Emakundek sustatu ditu guztiak.

Sailarteko talde teknikoaren esparruan, Berdintasun Unitateak parte hartu du 2017an sortu ziren hiru lantaldeetako bitan. Legealdiko lehentasunen eta gobernantzaren gaineko lantalde teknikoan bi bileratara

*ejes de intervención, 1 cuestionario de Gobernanza, con un Informe de Observaciones adjunto, y tras 10 reuniones de contraste. Además se han realizado aportaciones al Informe de Seguimiento 2015, en coordinación con Emakunde.*

*Se ha elaborado el Programa para la Igualdad de mujeres y hombres del Departamento de Gobernanza Pública y Autogobierno para 2017, tras 9 reuniones de contraste y la elaboración de 11 fichas para planificación.*

*Ambos procesos se han articulado a través del Grupo Técnico Departamental para el impulso y la coordinación de la Planificación de igualdad dentro del departamento, del que se han convocado 4 reuniones grupales y para el que se han elaborado 7 documentos.*

*Se ha realizado el asesoramiento técnico en el impulso y la integración de la perspectiva de género y en materia de igualdad de mujeres y hombres al personal de las direcciones departamentales y sociedades públicas adscritas: 27 documentos revisados, 15 informes de asesoramiento y 5 reuniones.*

*Durante 2017 se ha comenzado la implantación del I Plan para la Igualdad de mujeres y hombres de la Administración General y Organismos Autónomos, con la elaboración del Plan de gestión 2017-18, 3 informes de asesoramiento y 10 documentos revisados, a través de 20 reuniones que incluyen las 5 de la Comisión Permanente de Igualdad y las 15 del grupo de trabajo interno.*

*Además se ha impulsado la incorporación del enfoque de género en la elaboración de las memorias presupuestarias departamentales a través de: participación en curso sobre Presupuestos con enfoque de género (4 personas), 1 reunión con todas las direcciones departamentales y 9 reuniones de coordinación/preparatorias entre la Unidad de Igualdad y la Dirección de Servicios. Además se ha revisado y reelaborado 1 memoria, se han cumplimentado 2 formularios y se han revisado 11 memorias y 10 formularios de las direcciones departamentales y del IVAP.*

*Respecto al Informe de Evaluación de Impacto de los Presupuestos 2018, se ha colaborado con el departamento de Hacienda y Economía con los 12 formularios señalados, así como con aportaciones a dicho Informe.*

*Se ha impulsado entre el personal del departamento su participación en las acciones formativas del Plan de Formación en materia de igualdad de la Administración General para 2017 y del Programa Gizonduz 2017.*

*Se ha colaborado con Emakunde en el contraste del VII Plan para la Igualdad de la CAE, participando en un grupo de discusión y con un informe, así como haciendo aportaciones al Plan Vasco de Estadística, a través de una reunión en coordinación con EUSTAT y un informe.*

*Se ha participado en una reunión del Grupo Técnico Interinstitucional y en 4 reuniones del grupo Técnico Interdepartamental, ambos impulsados por Emakunde.*

*En el marco del Grupo Técnico Interdepartamental, la Unidad de Igualdad ha participado en 2 de los 3 grupos de trabajo creados en 2017. En el Grupo Técnico sobre Prioridades de Legislatura y Gobernanza, ha asistido a dos*

joan gara, eta fitxa bat bete dugu. Genero-ikuspegia duten aurrekontuei buruzko talde teknikoan hiru bileratan eta lineako elkargune batean parte hartu dugu. Horrez gain, 5 dokumentu/txosten egin dira.

*reuniones y ha completado 1 ficha. En el Grupo Técnico sobre Presupuestos con Enfoque de Género, ha participado en 3 reuniones, en un espacio colaborativo online, y ha elaborado 5 documentos/informes.*

**10. ESTATISTIKA-ERAGIKETAK**

Saileko Estatistika Organo Espezifikoak «E-administrazioaren barometroa» deituriko jarduketari buruzko informazioa jaso, ustiatu eta zabaldu du, 2017an, saileko atarian. «Administrazio elektronikoaren eskaerari buruzko 2017ko azterlana» prestatu eta zabaldu da. Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde publiko guztien atarien, edukien, zerbitzuen, prozeduren eta izapideen errolda-bilketa egin da, «Zerbitzu publiko elektronikoen estatistika. 2015» eragiketan egin da.

«Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko Langile-Estatistika. 2017» deituriko estatistikaren gutxieneko nahitaezko hedapena egin da, sei hilez behin.

Horrez gain, «Euskal Autonomia Erkidegoko fundazio sektorea eta onura publikoko elkartegintza. 2015» deituriko estatistikaren gutxieneko nahitaezko hedapena egin da, urtean behin. Jarduketaren proiektu teknikoa ere egin da.

Lau ustiaketa eta hedapen egin zaizkio —hiruhilekoak— Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzak kudeaturiko «Zerbitzuen Katalogo»ari.

Saileko 2018-2022 Euskal Plana egin da, sailean interesa zuten zuzendaritza guztien lankidetzarekin batera. Planean dauden bi estatistika-jarduketaren bideragarritasuna aztertu da: «Gobernantza-BIG adierazleen bateria» eta «Saileko estatistika-ataria. Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saila». Lantaldeei plan horren berri eman zaie, 2018-2022 Euskal Estatistika Planaren Legearen aurreproiektua egin dezaten.

Aipatu ditugun azterlanez eta txostenez gain, estatistika-alorreko 35 eskaera gehiago erantzun ditugu; datuei edota aholkularitzari buruzkoak, batik bat.

***10. OPERACIONES ESTADÍSTICAS***

*El Órgano Estadístico Específico del Departamento, durante 2017, ha recogido, explotado y difundido en el portal del Departamento la información correspondiente a la operación 'Barómetro de la E-Administración. Se prepara y difunde el informe 'Estudio de Demanda de Administración Electrónica 2017'. Por otro lado, se ha seguido con la recogida censal de portales, contenidos, servicios, procedimientos y trámites correspondientes a todas las entidades públicas de la Comunidad Autónoma de Euskadi, dentro de la operación "Estadística de Servicios Públicos Electrónicos. 2015".*

*Se ha realizado la difusión mínima obligatoria, con carácter semestral, de la estadística "Personal al Servicio de la Administración de la C.A. de Euskadi. 2017".*

*Así mismo se ha realizado la difusión mínima obligatoria, con carácter anual, de la estadística "El sector fundacional y el asociacionismo de utilidad pública en la C.A. de Euskadi. 2015". Se ha preparado el proyecto técnico de la operación.*

*Se han realizado cuatro explotaciones (de periodicidad trimestral) y difusión del "Catálogo de Servicios" gestionados por la DACIMA.*

*Con la colaboración de todas las direcciones del Departamento interesadas se ha elaborado el Plan Estadístico Departamental 2018-2022. Se ha realizado el estudio de viabilidad de dos operaciones estadísticas nuevas incluidas en el Plan: "Batería de Indicadores de Gobernanza-BIG" y " Portal estadístico departamental. Departamento de Gobernanza Pública y Autogobierno". Se ha dado traslado del citado Plan a los grupos de trabajo creados para la elaboración del anteproyecto de Ley del Plan Vasco de Estadística 2018-2022.*

*Además de las citadas estadísticas e informes se han contestado 35 peticiones de carácter estadístico -datos, informes o asesoramientos-.*

**PROGRAMA**

1212 ZERBITZU OROKORRAK

**ARDURADUNA**

02 GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNUA

ADMINISTRAZIO ETA ZERBITZU OROKORRETAKO SAILBURUORDETZA

## HELBURUA

1. KUDEAKETA ZENTRALIZATUEN ERAIKINAK ETA BERE AZPIEGITURAK HERRI ADMINISTRAZIOAREN FUNTZIONAMENDUAREN ARABERA EGOKITZEA
2. HIGIEZINEN KUDEAKETA TEKNIKOA ETA USTIAPENA
3. ZERBITZU KOMUNETAKO ESKAINTZAREN HOBEKUNTZA
4. KUDEAKETA ZENTRALIZATUTAKO ERAIKINEI EZARRITAKO SEGURTASUN PLANA BETETZEA
5. ARGITALPEN ZERBITZU NAGUSIA MODERNIZATZEN JARRAITZEA
6. AHOLKULARITZAREN ONDORIOZKO HOBEKUNTZAK BIBLIOTEKAK SAREAN MARTXAN JARTZEA
7. JARRAITZEA ARTXIBOAK KUDEATZEKO SISTEMA INFORMATIKOA EZARTZEN ADMINISTRAZIO ATALETAN
Funtzio Publikoko Zuzendaritzari dagokionez, lanpostu guztiei lotutako prestakuntza-curriculumei eutsi zaie, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko lanpostuen prestakuntzaren diseinuaren euskarria izango den datu-base bat edukitzeko.

## *7. PROCEDIMIENTO DE FORMACIÓN Y RECICLAJE DEL PERSONAL AL SERVICIO DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DEL PAÍS VASCO*

*En lo que a la Dirección de Función Pública se refiere se ha procedido al mantenimiento de los currículos de formación de todos los puestos de trabajo a efectos de mantener una base de datos que de soporte al diseño de la formación de los puestos de trabajo en la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco.*

## 8. ADMINISTRAZIOKO LANGILEEN ARAUBIDE EKONOMIKOA ETA JURIDIKOA KUDEATZEA, ETA, OROBAT, FUNTZIO PUBLIKOAREN ARLOKO XEDAPENEN ETA AKORDIOEN JARRAIPENA ETA KONTROLA EGITEA

Nahitaezko 43 txosten egin dira, EAEko Administrazioaren zerbitzurako langileei eragiten dien araubide juridikoari buruzkoak.

Administrazioak eman dituen xedapenen aurkako errekurtsoak ebatzi dira. Guztira, 310 ebazpen eman dira.

## *8. GESTIÓN DE RÉGIMEN ECONÓMICO Y JURÍDICO DEL PERSONAL AL SERVICIO DE LA ADMINISTRACIÓN, ASÍ COMO EL SEGUIMIENTO Y CONTROL DE DISPOSICIONES Y ACUERDOS EN MATERIA DE FUNCIÓN PÚBLICA*

*Se ha procedido a la emisión de 43 informes preceptivos en materias relacionadas con el régimen jurídico del personal al servicio de la Administración Vasca.*

*Se ha procedido a la resolución de los recursos contra las disposiciones emanadas por la Administración hasta un total de 310 resoluciones de recursos.*

Langileak kontratatzeko, hirurtekoak kudeatzeko, zerbitzuak aitortzeko eta eszedentziak antolatzeko 23.224 espediente izapidetu dira.

Ordainsarien, kudeaketaren eta PFEZ arloetako izapideak eta kudeaketak egin dira. Horrez gain, aseguru sozialak eta nominak ere izapidetu eta kudeatu dira. Nominei eta aseguru sozialei lotutako 800.000 ordainagiri egin dira.

Erregistroko langileei buruzko datu-baseak etengabe eguneratzea:

- Erregistroan izena ematea eta aldaketak egitea: 5.918
- Espedienteak digitalizatzea eta datuak erregistroan sartzea: 5.676
- Zerbitzu-egiaztagiriak igortzea: 107 ziurtagiri.

Langileen arloko akordioetan ezarritako xedapenen jarraipena eta kontrola: Funtzio Publikoko Zuzendaritzak 34 txosten egin ditu, enplegatu publikoen erregimen juridikoari buruzko zenbait gairen eta hainbat proposamen arauemaileren gainean.

Legealdiaren aldaketa dela eta, kargua uzteko eta kargua hartzeko prozedurak kudeatzea: kargua uzteko eta kargua hartzeko 431 egoera kudeatu dira.

2017ko urriaren 6ko eta 26ko ebazpenen bitartez, Administrazio Orokorreko lan-poltsetan langileak sartu dira (Administrazioko goi-mailako kidegoa; goi-mailako teknikarien kidegoa (Zuzenbide aukera); Osasun Publikoko eskala; Artxiboa, Liburutegia eta Dokumentazioa, orientatzailea eta administrariak), IVAPek egin dituen deialdi zehatzetatik eratorrita.

Geroago, Gobernu Kontseilura eramango diren arauak egin eta izapidetu dira, ordainsari-araubidearen kudeaketari lotuta:

- Gobernu Kontseiluaren akordioa, 2017an langileen soldata % 1 igotzeko.
- Gobernu Kontseiluaren akordioa, 2017ko maiatzaren 16koa, 2012ko abenduko aparteko ordainsariaren azken zatia Justizia Administrazioko langileei ordaintzeko
- Gobernu Kontseiluaren 2017ko azaroaren 14ko akordioa, 2012ko abenduko aparteko ordainsariaren azken zatia ordaintzeko.

Funtzio Publikoko sailburuordearen eskumeneko errekurtsoen ebazpenak eta jarraibideak eman dira, Administrazio Publikoko langileen kudeaketan:

- Funtzio Publikoko sailburuordearen 37 ebazpen eman dira
- Funtzio Publikoko sailburuordeak 2017ko otsailaren 2an emandako jarraibidea, amatasun subrogatuari lotutako baimenak hartzeari buruzkoa
- 2/2017 Jarraibidea, maiatzaren 26koa, Funtzio Publikoko sailburuordearena, lanpostuak aldi baterako

*Tramitación de los expedientes de contratación de personal, trienios, reconocimientos de servicios, excedencias en 23.224 expedientes.*

*Tramitación y gestión en materia de retribuciones, gestión y tramitación de IRPF, gestión de seguros sociales y nóminas con la emisión de 800.000 recibos de nóminas y seguros sociales.*

*Actualización permanente de las bases de datos de personal del Registro:*

- *Inscripciones y modificaciones de registro: 5.918*
- *Digitalización de expedientes e introducción de datos en Registro: 5.676*
- *Emisión de certificaciones de servicios: 107 certificados*

*Seguimiento y control de las disposiciones de acuerdos en materia de personal: 34 Informes realizados por la Dirección de Función Pública sobre diversos temas concernientes al régimen jurídico del personal empleado público y sobre distintas propuestas normativas*

*Gestión de los ceses y nombramientos de los cargos en relación con el cambio de legislatura: 431 ceses y nombramientos gestionados.*

*Se ha procedido a la integración de personal en las bolsas de trabajo de Administración General (Cuerpo Superior de la Administración, C.S.F. Opción derecho, Escala Salud Pública, Archivo Biblioteca y Documentación, Orientador/a y Administrativos), mediante Resoluciones de 6 y 26 de octubre de 2017) proveniente de las convocatoria específicas realizadas por el IVAP.*

*Se han elaborado y tramitado las normas que posteriormente se elevan a Consejo de Gobierno en relación con la gestión del régimen retributivo:*

- *Acuerdo de Consejo de Gobierno de incremento retributivo del 1% para el personal para el año 2017*
- *Acuerdo de Consejo de Gobierno, de 16 de mayo de 2017, de abono de la última parte de la paga extra de diciembre de 2012, al personal de la Administración de Justicia*
- *Acuerdo de Consejo de Gobierno, de 14 de noviembre de 2017, de abono de la última parte de la paga extra de diciembre de 2012*

*Se ha elaborado la resolución de recursos e instrucciones cuya competencia corresponde al Viceconsejero de Función Pública en la gestión del personal de la Administración Pública:*

- *Emisión de 37 resoluciones del Viceconsejero de Función Pública*
- *Instrucción de 2 de febrero de 2017, del Viceconsejero de Función Pública, en relación al disfrute de los permisos por maternidad subrogada*
- *Instrucción n. 2/2017, de 26 de mayo, del Viceconsejero de Función Pública, por la que se*

betetzeko prozeduretako izapideetan bete beharreko irizpideak ezartzen dituena.

*recopilan los criterios que rigen en la tramitación de los procedimientos de provisión temporal de puestos de trabajo.*

Ekainaren 26ko 1/2014 Legea, Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Haien Interes Gatazkak Arautzen dituena, betetze aldera, eta, zehazki, Funtzio Publikoko Zuzendaritzaren Erregistro Zerbitzuari agintzen dizkion egitekoak gauzatze aldera, honako jarduera hauek egin dira: kargu publikoen katalogoa eguneratu da; lege horrek kargu publikodun langileei ezartzen dizkien betebeharren kudeaketa administratiboa egin da; bateragarritasuna aitortzeko eskabideak izapidetu dira; legean ezarritako betebeharrak kargu publikodun langileek zenbateraino betetzen dituzten zehazteko txostena Legebiltzarrera bidali da.

*En cumplimiento de las funciones que la Ley 1/2014, de 26 de junio, Reguladora del Código de Conducta y de los Conflictos de Intereses de los Cargos Públicos atribuye al Servicio de Registro de Personal de la Dirección de Función Pública, se ha llevado a cabo el mantenimiento actualizado del catálogo de cargos públicos, la gestión administrativa de la obligaciones que dicha ley impone al personal cargo público y la tramitación de las solicitudes de declaración de compatibilidad y el envío al Parlamento del informe sobre el grado de cumplimiento por el personal cargo público de la obligaciones establecidas en la citada ley.*

Kargu publikodunen betebeharrei eta eskubideei buruzkoa den azaroaren 15eko 156/2016 Dekretuko 51. artikuluan argitalpen aktiboari buruzko konpromisoan ezarritako informazio publikoaren zaintzea eta eguneratzea kudeatu dira.

*Se ha gestionado el mantenimiento y actualización de la información pública incluida en el compromiso de publicación activa del artículo 51 del Decreto 156/2016, de 15 de noviembre, sobre obligaciones y derechos del personal cargo público.*

Jardueren eta Ondare Ondasun eta Eskubideen Erregistroaren kudeaketan erregistroko dokumentuak kudeatzeko sistema berrikusi eta hobetu da. EIZUn sartuta dago.

*En la gestión del Registro de Actividades y Bienes y Derechos Patrimoniales se ha realizado la revisión y mejora del sistema de gestión documental del mismo, integrado en EIZU.*

Langileen Erregistroko datuak erabilita, EAEko Administrazio Orokorrean zerbitzu egiten duten langileei buruzko bi estatistika egin dira (200190 kodea). Era berean, Administrazio Publikoen zerbitzuko langileei buruzko estatistika-buletineko bi estatistika egiteko informazioa osatu da (BESAP). Halaber, EUSTATek egiten dituen administrazio publikoen direktorio-estatistika osatzeko ere informazioa eman da.

*De los datos del Registro de Personal, se han elaborado 2 estadísticas de Personal al servicio de la Administración General de la CAE (Cód. 200190). Asimismo se ha elaborado la información para 2 estadísticas del Boletín Estadístico del Personal al Servicio de las Administraciones Públicas (BESAP) y para la Estadística Directorio de Administraciones Públicas de EUSTAT.*

Administrazio Orokorreko langileen ikasketa-datuak eta lanbide-datuak berrikusteko prozesua egin da.

*Se ha llevado a cabo un proceso de revisión de los datos académicos y profesionales del personal de la Administración General.*

## 9. ADMINISTRAZIO OROKORRAREN, ERAKUNDE AUTONOMOEN ETA SOZIETATE PUBLIKOEN ZERBITZUPEKO LANGILEEN LAN-BALDINTZAK ERREGULATZEA

## *9. REGULACIÓN DE LAS CONDICIONES DE TRABAJO DEL PERSONAL ADSCRITO A LA ADMINISTRACIÓN GENERAL, ORGANISMOS AUTÓNOMOS Y SOCIEDADES PÚBLICAS*

Mahai negoziatzaileei eta txostenak egiteari dagokienez, honako jarduera hauek egin dira:

- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko Negoziazio Mahai orokorrak lau bilera egin ditu, langileen lan-baldintzak eztabaidatzeko (besteak beste, 2012ko aparteko ordainsaria itzultzea eta soldata-aldaketak); sindikatuen jarduera finantzatzea; Enplegu Plan Estrategikoa 2017-2020; eta EAEko Enplegu Publikoaren aurreproiektua.

- Administrazio Orokorreko langileen negoziazio-mahai sektorialak 19 bilera egin ditu. Bilera horietan, besteak beste, honako gai hauek landu dira: Berdintasun Plana, Ibaiondoko poltsak, Lanbideko langileak, EUSTAT, lekualdaketen lehiaketa eta lanpostua berriro hartzea, HOBETUZ eta jardunaldien eta ordutegien zirkularra.

*En relación con las mesas negociadoras y la elaboración de informes:*

- *Se han celebrado cuatro reuniones de Mesa general de negociación de la Administración de la Comunidad Autónoma para tratar las condiciones de trabajo del personal -entre otras, el reintegro de la paga extraordinaria de 2012 y modificaciones salariales-, la financiación de la actividad sindical, el Plan Estratégico de empleo 2017-2020 y el Anteproyecto de Ley de Empelo Público Vasco.*

- *Se han celebrador 19 reuniones de la mesa sectorial de negociación del personal de la Administración General en las que, entre otros, se han tratado los siguientes temas: Plan de igualdad, Bolsas de Ibaiondo, personal de Lanbide y EUSTAT, concurso de traslados y recolocación, HOBETUZ y circular de jornadas y horarios.*

- Nahitaezko 15 txosten egin dira, sozietate publikoetako eta zuzenbide pribatuko erakunde publikoetako langileen hitzarmenei eta soldaten berrikuspenei buruz.

Funtzionarioen lan-baldintzei buruzko akordioaren eta EAEko langile lan-kontratudunen hitzarmen kolektiboaren batzorde paritarioak bilera bat egin du, zerbitzuak kanporatzeari buruz, EUSTATen.

Administrazio Orokorraren I. Berdintasun Plana ezartzeko neurritzat hartuta, Berdintasunerako Batzorde Iraunkorra sortu da, eta 2017-2018 aldian egingo diren ekintzak antolatu dira, planaren ardatzei jarraikiz.

Akordioak eta hitzarmenak interpretatzeko eta aplikatzeko funtzioetan, saileko galderei erantzun diegu, ahoz zein idatziz, eta horri buruzko bi zirkular idatzi ditugu.

Era berean, 2017an luzatu da lanaldiei eta ordutegiei buruzko zirkularra (2016koa).

Halaber, telelan modalitatean zerbitzuak emateko eskaintzak izapidetu dira (221 eskaintza izan dira). Zerbitzu horretarako deialdia Funtzio Publikoko sailburuordearen ebazpenaren bidez egin zen (ebazpena maiatzaren 29koa da).

- *Se han emitido 15 informes preceptivos sobre convenios y revisiones salariales suscritos para personal de las sociedades públicas y entes públicos de derecho privado.*

*Se ha celebrado una reunión de la Comisión paritaria del Acuerdo de condiciones de trabajo del personal funcionario y Convenio Colectivo del personal laboral de la CAE sobre la externalización de servicios en EUSTAT.*

*Dentro de las medidas de implantación del I Plan para la Igualdad de la Administración General se ha creado la Comisión Permanente de Igualdad y se han planificado las acciones a llevar a cabo en el periodo 2017-2018, dentro de los diferentes ejes de actuación del Plan.*

*Dentro de la función de interpretación y aplicación de los Acuerdos y Convenios suscritos se han atendido las consultas de los distintos departamentos tanto de forma verbal como escrita, y se han emitido dos circulares al respecto.*

*Asimismo, durante el ejercicio 2017, la Circular de jornadas y horarios, fue prorrogada (la de 2016).*

*Se han tramitado las solicitudes de prestación de servicios en la modalidad de teletrabajo convocada mediante Resolución del Viceconsejero de Función Pública de fecha 29 de mayo (221 solicitudes).*

## 10. ZERBITZU OROKORRAK EMATEA

Prestazio sozialak emateko prozeduren arauzko xedapenak eta barneko jarraibideak eguneratzeko eta egokitzeko helburua egokitzeko fasean dago, SAP informatika-euskarri berrian kudeatu ahal izateko.

Lakuako egoitza nagusiko langileei jantoki-zerbitzua eman zaie, eta zerbitzuaren funtzionamenduarekin lotutako kontratuen kudeaketa administratiboa eta kontabilitatekoa egin da. 2017an, 35.128 pertsonak erabili dute jantoki-zerbitzua. Era berean, janaria etxetik ekartzen duten langileek erabiltzen duten jantokia ere kudeatu da, eta zerbitzuaren eskaintza handitu da. «JANTOKI LAKUA» aplikazioa (interneteko aplikazioa eta mugikorretan erabiltzekoa) ezartzeko prozedura pilotua martxan jarri da, Lakuako jantokiko txartelak era elektronikoan erosteko, Eusko Jaurlaritzaren ordainketa-pasabidearen bidez, finantzaketa-erakunde laguntzaileen banka elektronikoaren bidez, edo banku-txartelaren bidez.

Euskal Autonomia Erkidegoko eraikin eta egoitza guztietan sartzeko eta fitxatzeko txartelei dagokienez, jarduketen kopurua ia bikoiztu da, funtsean, Gobernuaren aldaketaren ondorioz. Zehazki, 1.969 txartel egin dira.

Nominaren aurrerakinak eta aurrerakin horiek Administrazio Orokorrera eta haren erakunde autonomoetara itzultzen diren ziurtatzea, bai eta aurrerakinak amortizatzeko gertatzen diren intzidentzia guztien kontabilitate-kudeaketa

## *10. PRESTACIÓN DE SERVICIOS GENERALES*

*El objetivo de actualización y adecuación de disposiciones reglamentarias e instrucciones internas de los procedimientos de prestaciones sociales está en la fase de adecuación-adaptación para su gestión en el nuevo soporte informático SAP.*

*En lo referido a la prestación del servicio de comedor al personal con destino en la sede central de Lakua y gestión administrativa y contable de los contratos asociados al funcionamiento del servicio. En el ejercicio 2017 se han contabilizado 35.128 usuarios del Servicio de Comedor. Asimismo se ha gestionado el comedor utilizado por el personal que trae de fuera su propia comida y se ha ampliado la oferta del servicio. Se ha puesto en marcha un procedimiento piloto para la implantación de la aplicación web/móvil "JANTOKI LAKUA" para la compra electrónica de tickets del comedor de Lakua y su abono a través de la Pasarela de Pagos del Gobierno Vasco mediante la banca electrónica de las entidades financieras colaboradoras o con tarjeta bancaria.*

*En lo referido a la elaboración de tarjetas de fichar y de acceso a todos los edificios-sede de la Administración de la Comunidad Autónoma se ha duplicado el número de actuaciones debido fundamentalmente al cambio de Gobierno elevándose la cifra de elaboración de tarjetas a 1.969.*

*Adelantos de nómina y seguimiento del reintegro de los mismos correspondientes a la Administración General y Organismos Autónomos, así como gestión contable de todas las incidencias que se producen para su*

ere: 2017an, 62 espediente egin dira, laguntza sozial horri dagokionez.

2016ko gizarte-funtsa banatzeko araudia egin eta argitaratu da, eta laguntzen deialdia ere kudeatu da. Zehatz-mehatz, 340 espediente kudeatu dira.

Eskubide pasiboak onartzeko espedienteetako dokumentazioaren urteko eguneratzea egin da. Guztira, 33 espediente onartu dira, 13/87 Dekretuari jarraituz; eta 67 espediente, berriz, Jaurlaritzari buruzko 7/81 Legearen arabera).

## 11. LANEKO OSASUNA - LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOA

Lan-osasunari dagokionez, aurreikusita zeuden lan-postuen ebaluazioak baino ebaluazio gehiago egin dira, guztira 99 ebaluazio egin baitira. Gainera, lantokien ebaluazioak 27 izan dira.

Lan-antolaketari lotutako gatazkak konpontzeko esku-hartzeei dagokienez, bileren kopurua uste baino handiagoa izan da. Guztira, 29 bilera egin, eta 8 txosten idatzi dira.

Txostenak egiteko, erreklamazioak ebazteko eta eskaerei erantzuteko funtzioei dagokienez, 196 ebatzi dira, aurreikusita zeudenak baino lau gutxiago.

Berrikusi diren larrialdiko planen kopurua bat izan da; eta, aldiz, larrialdietako 12 plan berri egin dira. Ebakuazio-simulazioen aurreikuspenei dagokienez, aurreikusitako txostenak eta ariketak egin dira. Horrez gain, alarma- eta ebakuazio-ekipoak berrikusi dira.

Ez diogu heldu lan-jazarpenari eta sexu-arrazoiengatik egiten den jazarpenari aurrea hartzeko eta horrelako kasuetan esku hartzeko prozedurari. Izan ere, I. Berdintasun Planean ezarrita dago horri 2018an helduko zaiola.

Prestakuntza-arloko planak bete dira, aurreikusitako bi ikastaroak diseinatu direlako.

Medikuntza-arloko jarduerari dagokionez, aurreikusita zeuden txostenak, medikuntza-azterketak eta kontsultak egin dira. Horrez gain, aldi baterako ezintasuna ordaintzeari eta hitzarmena betetzeari buruzko txostenak ere egin dira.

Lantokien arteko Segurtasun eta Osasun Batzordearen jarduerari eutsi zaio. Zehazki, hiru bilera egin, eta sei dokumentu idatzi dira.

Telelanari dagokionez, aurrez egin behar den osasun-arloko ikastaroa egin da. Gainera, arriskuen ebaluazio espezifikatuak egin dira. Bestalde, arrisku-ebaluazio espezifikoak 8 izan dira, eta lanpostuen azterketari buruzko txostenak 10 izan dira.

Berdintasun-printzipioa prebentzio-arloan sartzeari dagokionez, 18 lan-bilera eta bi lan-txosten egin dira.

*amortización: En el ejercicio 2017 se ha alcanzado el número de 62 expedientes relativos a ésta atención social.*

*Se ha procedido a elaborar y publicar la normativa correspondiente a la distribución del Fondo Social del ejercicio 2016, así como, a la gestión de la convocatoria de ayudas elevándose el número de expedientes tramitados a 340.*

*En el marco de la actualización anual de la documentación de los expedientes en que se ha reconocido algún derecho pasivo se han trabajado un total de 33 expedientes reconocidos conforme al Decreto 13/87 y 67 al amparo de la Ley 7/81, de Gobierno.*

## *11. SALUD LABORAL-PREVENCIÓN DE RIESGOS LABORALES*

*En cuanto a la salud laboral, ha de tenerse en cuenta que se ha superado el n. de evaluaciones de puestos de trabajo previstas, pues se han hecho 99 evaluaciones. Además, se han realizado 27 evaluaciones de centros de trabajo.*

*Por lo que se refiere a la intervención en la resolución de conflictos de la organización del trabajo el n. de reuniones ha sido superior al previsto, pues se han realizado 29 reuniones y se han redactado 8 informes.*

*En cuanto a la emisión de informes, resolución de reclamaciones y peticiones, se han resuelto 196, cuatro menos de las previstas.*

*El n. de planes de emergencia revisados ha sido de 1 y en cambio se han elaborado 12 nuevos planes de emergencia. Se han cumplido las previsiones de los simulacros de evacuación (informe y ejercicios) y la revisión de los equipos de alarma y evacuación.*

*No se ha abordado la elaboración del procedimiento de prevención y actuación en casos de acoso laboral y por razón de sexo, puesto que dentro del I Plan para la Igualdad se ha planificado su abordaje para el año 2018.*

*Se han cumplido las previsiones en materia de formación, pues se han diseñado los dos cursos previstos.*

*Por lo que se refiere a la actividad del Área Médica se ha cumplido con las previsiones en cuanto a la elaboración de informes, reconocimientos médicos y consultas, así como los informes sobre abono de IT y sobre aplicación del Convenio.*

*Se ha mantenido la actividad del Comité de Seguridad y Salud Intercentros con 3 reuniones y se han elaborado 6 documentos.*

*Con relación al teletrabajo, se ha impartido el curso previo y necesario en materia de salud laboral, y además se han realizado evaluaciones de riesgos especificadas. Si bien, se han hecho 8 evaluaciones de riesgos específicas y el número de informes de revisión de los puesto ha sido de 10.*

*En cuanto a la introducción del principio de igualdad en el ámbito de la prevención, se han hecho 18 reuniones de trabajo y elaborado 2 documentos de trabajo.*

Prebentzio-planean ezarritako lan-prozedurak aplikatzeari buruzko galderen erantzunei dagokienez, aurreikusitakoa baino txikiagoa izan da erantzunen kopurua; zehazki, hiru kontsulta erantzun dira.

*En cuanto a las respuestas a las consultas sobre la aplicación de los procedimientos de trabajo del plan de prevención el n. ha sido inferior al previsto, pues se han respondido 3 consultas.*

| **PROGRAMA** | ***PROGRAMA*** |
|---|---|
| 1214 INFORMATIKA ETA TELEKOMUNIKAZIOAK | *1214 INFORMÁTICA Y TELECOMUNICACIONES* |
| **ARDURADUNA** | ***RESPONSABLE*** |
| 02 GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNUA | *02 GOBERNANZA PÚBLICA Y AUTOGOBIERNO* |
| ADMINISTRAZIO ETA ZERBITZU OROKORRETAKO SAILBURUORDETZA | *VICECONSEJERÍA DE ADMINISTRACIÓN Y SERVICIOS GENERALES* |

## HELBURUA

1. EAE-KO ADMINISTRAZIO OROKORREKO ETA ERAKUNDE AUTONOMOETAKO INFORMAZIO SISTEMAK EUSKARRITZEA, MANTENTZEA ETA HOBETZEA, EUSKO JAURLARITZAK EJIE-RI AGINDUTAKO KUDEAKETA OROKORRAREN ESPARRUAN

2. TELEKOMUNIKAZIOETAKO SEINALEAK ERAMAN ETA HEDATZEKO ZERBITZUA EMAN ETA BERMATZEA,EUSKO JAURLARITZAK ITELAZPI SOZIETATEARI EGINDAKO KUDEAKETA AGINDUAREN BARRUAN

3. EUSKO JAURLARITZAKO ADMINISTRAZIO SARE KORPORATIBOAREN KOMUNIKAZIO ZERBITZUA EMAN ETA BERMATZEA

4. JABETZA UKIEZINAK

5. INFORMATIKA POLITIKA BETETZEA, PROIEKTU ETA PROZESU KOMUN EDO HORIZONTALAK ETA HORIEN HEDAPENA KOORDINATUTA

## *OBJETIVO*

*1. SOPORTE, MANTENIMIENTO Y MEJORA DE LOS SISTEMAS DE INFORMACIÓN DE LA ADMINISTRACIÓN GENERAL DE LA CAE Y SUS ORGANISMOS AUTÓNOMOS EN EL MARCO DE LA ENCOMIENDA DE GESTIÓN GENERAL DEL GOBIERNO VASCO A EJIE*

*2. PRESTACIÓN Y GARANTÍA DEL SERVICIO DE TRANSPORTE Y DIFUSIÓN DE SEÑALES DE TELECOMUNICACIONES EN EL MARCO DE LA ENCOMIENDA DE GESTIÓN DEL GOBIERNO VASCO A ITELAZPI*

*3. PRESTACIÓN Y GARANTÍA DEL SERVICIO DE COMUNICACIONES DE LA RED CORPORATIVA ADMINISTRATIVA DEL GOBIERNO VASCO*

*4. PROPIEDADES INCORPORALES*

*5. CUMPLIMIENTO DE LA POLÍTICA INFORMÁTICA, COORDINANDO LOS PROYECTOS Y PROCESOS COMUNES U HORIZONTALES Y SU DIFUSIÓN*

## BETETZE MAILA

**1. EAE-KO ADMINISTRAZIO OROKORREKO ETA ERAKUNDE AUTONOMOETAKO INFORMAZIO SISTEMAK EUSKARRITZEA, MANTENTZEA ETA HOBETZEA, EUSKO JAURLARITZAK EJIE-RI AGINDUTAKO KUDEAKETA OROKORRAREN ESPARRUAN**

Ustiatze-, kudeaketa- eta laguntza teknikoko arloetan laguntza eman zaie erabiltzaileei.

Hainbat sailetan aplikatzeko proiektuak eta zerbitzu elektronikoak garatu eta bilakatu dira.

Aplikazioen mantentze osoa egin da, sailekin zerbitzu-mailak ezartzeko egin diren akordioen arabera.

Proiektu korporatiboetarako software berriak ezarri dira.

Software korporatiboak egokitu eta migratu dira.

## *GRADO DE CUMPLIMIENTO*

***1. SOPORTE, MANTENIMIENTO Y MEJORA DE LOS SISTEMAS DE INFORMACIÓN DE LA ADMINISTRACIÓN GENERAL DE LA CAE Y SUS ORGANISMOS AUTÓNOMOS EN EL MARCO DE LA ENCOMIENDA DE GESTIÓN GENERAL DEL GOBIERNO VASCO A EJIE***

*Se ha dado soporte de atención a las personas usuarias mediante las tareas de explotación, gestión y soporte técnico.*

*Desarrollo y evolución de servicios electrónicos y proyectos comunes multidepartamentales.*

*Mantenimiento integral de aplicaciones con acuerdos de niveles de servicio para los departamentos.*

*Implantación de nuevos softwares para proyectos corporativos.*

*Adecuación y migración de softwares corporativos.*

Komunikazioak. Lakuako sarbide horizontaleko sarea hobetu da.

Segurtasun-proiektuak egin dira.

DataCenter-eko hobekuntzak:

- EMC VNX kabinak handitu dira, prozesatu behar den informazioaren kopurua handiagoa izan ahal dadin.
- Biltegiratze-azpiegitura handitu da.
- Ekipoak zaharkituta zeudenez, perimetroko babesa ematen duten suaren kontrako ekipoak eta moduluak berritu dira, segurtasuna bermatzeko.
- Kulunka-moduluak berritu dira.
- Blades zerbitzariak handitu dira.
- Zerbitzariak birtualizatzeko lizentziak eta VMware teknologia-postua birtualizatzeko lizentziak eskuratzea. Horrez gain, datuak prozesatzeko zentroaren ingurunea kudeatzeko beste software lizentzia batzuk ere eskuratu dira.

Cloud pribatu bat hornitzea.

*Comunicaciones. Mejora de la Red de acceso horizontal de Lakua.*

*Realización de proyectos de Seguridad.*

*Mejoras en el DataCenter:*

- *Una ampliación de las cabinas EMC VNX que permiten crecer en el volumen de información a procesar*
- *Ampliación de la infraestructura de almacenamiento.*
- *En relación con la seguridad y debido a la obsolescencia de los equipos actuales renovación de los equipos cortafuegos de defensa perimetral y módulos.*
- *Renovación de módulos de balanceo*
- *Ampliación Servidores Blades*
- *Adquisición de licencias de virtualización de los servidores y virtualización de puesto de tecnología VMware, además de otras licencias software que permiten gestionar el entorno del Centro de Procesamiento de Datos de una forma segura.*

*Suministro de una Cloud Privada.*

**2. TELEKOMUNIKAZIOETAKO SEINALEAK ERAMAN ETA HEDATZEKO ZERBITZUA EMAN ETA BERMATZEA,EUSKO JAURLARITZAK ITELAZPI SOZIETATEARI EGINDAKO KUDEAKETA AGINDUAREN BARRUAN**

EiTBko toki nagusien FM ekipamendua berritzeari dagokionez, Ganeta-ko ekipoak (lau igorle), Oiz mendikoak (hiru igorle), Jaizkibel mendikoak (lau igorle), Zaldiaran mendikoak (bost igorle) eta Loar mendikoak (bost igorle) ordeztu dira. Estaldura txikiagoko zentroetako ekipoak berritzea: esaterako, Txibiarte (lau igorle), El Raso (igorle bat), Lanestosa (lau igorle) eta Turtzioz (lau igorle). Guztira, 34 FM talde berritu dira 2017an.

Honako hauek izan dira Eusko Jaurlaritzaren telekomunikazio-sareko azpiegitura erabilgarrietan egin diren jarduera nagusiak, besteak beste: Hirumugeta-ko zentroan elikadura hibridoko energia-sistemak instalatu dira (haize-sorgailuak, eguzki-plakak, bateriak eta talde elektrogenoa berritzea); TDT kanalen kalitatea hobetzeko zentro berri bat eraiki da, Santurdeko nukleoan (Arabako Berantevilla udalerrian) eta Eibar-Aginagako zentro igorleko dorrea berritu da.

Bi TDT kanal berri ezartzeari buruz —196 telekomunikazio zentrotan ekipamendua instalatzea dakar—, 2017an ez da ezer egin. Hurrengo dibidendu digitalari dagokion TDT Plan Teknikoa onartutakoan egiteko asmoa dago.

Garraio-sareari dagokionez, lizitazioa eta esleipena egin dira, eta IP/MPLS nodo berriak instalatzen hasi dira. Aldiz, ezinezkoa izan da aurreikusitako 24 irrati-loturak berritzea,

***2. PRESTACIÓN Y GARANTÍA DEL SERVICIO DE TRANSPORTE Y DIFUSIÓN DE SEÑALES DE TELECOMUNICACIONES EN EL MARCO DE LA ENCOMIENDA DE GESTIÓN DEL GOBIERNO VASCO A ITELAZPI***

*En lo relativo a la renovación del equipamiento FM del grupo EiTB de los centros principales, han sido sustituidos los equipos de Ganeta (4 emisoras), Oiz (3 emisoras), Jaizkibel (4 emisoras), Zaldiaran (5 emisoras), Loar (5 emisoras). Renovación de equipo de centros de menor cobertura como Txibiarte (4 emisoras) y El Raso (1 emisora) y completar cobertura con Lanestosa (4 emisoras), Turtzioz (4 emisoras), en total se ha cumplido el objetivo de renovar 34 equipos de FM durante el 2017.*

*En lo relativo a las principales actuaciones en las infraestructuras disponibles de la Red de Telecomunicaciones del Gobierno Vasco, se ha acometido la instalación de sistemas de alimentación híbridos de energía (aerogeneradores, placas solares, baterías y renovación de grupo electrógeno) para el centro de Hirumugeta, la construcción de un nuevo centro para mejorar la calidad de los canales TDT en el núcleo de Santurde (Berantevilla-Araba) y la renovación de la torre del centro emisor de Eibar-Aginaga.*

*En lo referente a la implantación de dos canales nuevos de TDT, que implicaba la instalación de equipamiento en 196 de los centros de telecomunicaciones, no se ha realizado nada durante el 2017 en espera de acometerlo de forma simultánea cuando se apruebe el futuro Plan Técnico de la TDT correspondiente al 2. Dividendo Digital.*

*En la parte correspondiente a la red de transporte, se ha licitado adjudicado y se ha iniciado con la instalación de los nuevos nodos IP/MPLS, pero no se ha podido ejecutar la*

espediente horren esleipena 2017ko abenduan egin baitzen.

Azkenik, azterlanei eta proiektuei buruzko atalean, lantokien jarduerari buruzko memoriak legeztatzeko ekimena lantzen jarraitu dugu, eta udaletan erantzukizunpeko adierazpen gisa aurkeztu ditugu. Bestalde, TDT eta FM estazioak martxan jartzeko eskaerak ere aurkeztu ditugu, estazioei lotutako proiektu teknikoa onartuta bazuten.

*renovación de los 24 radioenlaces previstos ya que la adjudicación del expediente de los mismos se realizó en diciembre de 2017.*

*Por último dentro del apartado de Estudios y proyectos, se continua abordando la legalización de Memorias de Actividad de los Centros presentándolas como Declaraciones Responsables ante los Ayuntamientos correspondientes, así como las solicitudes de Puesta en Servicio de Estaciones TDT y FM que contaban con Proyecto Técnico aprobado.*

### 3. EUSKO JAURLARITZAKO ADMINISTRAZIO SARE KORPORATIBOAREN KOMUNIKAZIO ZERBITZUA EMAN ETA BERMATZEA

Administrazio-sare korporatiboaren euskarri diren telekomunikazio-zerbitzuetan eta ahotsa kommutatzeko nodoetan, 24x7 kontrola eta kudeaketa egin da, eta erantzuna eman zaie sortutako gertakari guztiei. Ildo horretatik, aurten zerbitzarien konexioa egiten duten zirkuituei erredundantzia eman zaie.

Era berean, bereizita eta datuen kommutazio-nodoak sartuta egon arren, sozietate publikoen eraikinetako mantentze-lanak egin dira.

Administrazio-sare korporatiboaren barruko eraikinetako azpiegituraren eguneratze dinamikoa egiten jarraituz, sailen beharrizanen arabera, hiru lekualdaketa egin dira, eta eraikin berrietan sei alta eman dira.

TDM terminalak IP terminaletara migratzeko plan orokorra iaz hasi zen Lehendakaritzarekin, eta, plan horri jarraikiz, 1.100 terminal aldatu dira Lakuako konplexuan.

### *3. PRESTACIÓN Y GARANTÍA DEL SERVICIO DE COMUNICACIONES DE LA RED CORPORATIVA ADMINISTRATIVA DEL GOBIERNO VASCO*

*Se ha realizado la gestión y control 24x7 de los servicios de telecomunicaciones y los nodos de conmutación de voz que soportan la Red Corporativa Administrativa, atendiendo todas las incidencias producidas. En este entorno, este año se ha dotado de redundancia a los circuitos que atienden la conexión de sus servidores.*

*De igual forma, aunque por separado e incluyendo los nodos de conmutación de datos, se ha realizado el mantenimiento del edificio de Sociedades Públicas.*

*Continuando con la actualización dinámica de la infraestructura de edificios integrados en Red Corporativa Administrativa, según la necesidad de los Departamentos, se han realizado 3 traslados y 6 altas de nuevos edificios.*

*Dentro del plan de migración general de terminales TDM a IP que comenzó el año pasado con Lehendakaritza, se ha realizado el cambio de unos 1.100 terminales dentro del complejo de Lakua.*

### 4. JABETZA UKIEZINAK

Eusko Jaurlaritzaren domeinuen administrazio-kudeaketaren izapideak eta mantentze-lana egin dira.

### *4. PROPIEDADES INCORPORALES*

*Se ha realizado la tramitación y mantenimiento de la gestión administrativa de los dominios de Gobierno Vasco.*

### 5. INFORMATIKA POLITIKA BETETZEA, PROIEKTU ETA PROZESU KOMUN EDO HORIZONTALAK ETA HORIEN HEDAPENA KOORDINATUTA

Segurtasun-auditoria bat egin da, datuak babesteko lege organikoak [DBLO] eta haren garapenerako erregelamenduak ezartzen dituzten betekizunak betetzeari dagokionez. «HAEE/IVAP Herri Arduralaritzaren Euskal Erakunde autonomoaren datu pertsonalen segurtasunari buruzko diagnostiko-txostena eta ekintza-plana».

Eusko Jaurlaritzaren administrazio elektronikoaren segurtasunarekin zerikusia duten batzordeei laguntza teknikoa eta babesa eman zaie, eta Segurtasun Eskema Nazionalari lotutako Segurtasun Bulego Teknikoa eratu da.

### *5. CUMPLIMIENTO DE LA POLÍTICA INFORMÁTICA, COORDINANDO LOS PROYECTOS Y PROCESOS COMUNES U HORIZONTALES Y SU DIFUSIÓN*

*Se ha realizado una auditoría de seguridad en relación al cumplimiento de las exigencias que establece la Ley Orgánica de Protección de Datos [LOPD] y el Reglamento de Desarrollo de la misma: «Informe de Diagnóstico y Plan de Acción sobre la seguridad de los datos de carácter personal del Organismo Autónomo Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea / Instituto Vasco de Administración Pública (HAEE/IVAP).*

*Se ha realizado la asistencia técnica y apoyo a los Comités asociados a la seguridad de la Administración Electrónica del Gobierno Vasco y se ha constituido de nuevo la Oficina Técnica de Seguridad asociada al Esquema Nacional de Seguridad.*

Segurtasunaren Batzorde Teknikoak (GureSeK) bilera bat egin du, eta Segurtasun Korporatiboaren Batzordeak ere beste bilera bat egin du, Gobernu Kontseiluak segurtasunari buruz hartu duen akordioan ezarritakoari jarraituz.

Eusko Jaurlaritzaren eta EJIE sozietate publikoaren arteko harremanaren ereduari dagozkion informazioa eta tarifak (kudeaketa orokorrerako aginduak, tarifa-ebazpenak) argitaratu dira. Harreman hori enkarguetan oinarritzen da.

Informatika eta Telekomunikazio Zuzendaritzaren (ITZ) kabinete teknologikoak sail eta erakunde autonomoei egiten dizkien jarduerak antolatu dira. Teknologia berriei buruzko sei mintegi.

«Aurrera» teknologia berriei buruzko dibulgazio-aldizkariaren lau ale argitaratu dira.

Eusko Jaurlaritzaren teknologia-estandarrak eguneratu dira (eguneratze- eta mantentze-lanak). Horrez gain, webeko informazioaren eta SALE izeneko software libreko bulegoaren sare sozialetako informazioaren mantentze-lana ere egin da.

Guztira, 162 txosten egin dira, informatika-gaiei buruz: baldintza teknikoen orriei buruzko 58 txosten, kudeaketa-mandatuei buruzko 100 txosten eta bestelako gaiei buruzko 4.

870 zerbitzu-eskaera baino gehiago aurkeztu ditugu, sail eta erakunde autonomoek eskatuta. Baliozkotzeko tresna normalizatuen bidez aurkeztu ditugu: 70 inguru atzera bota, eta gainerakoak baliozkotu egin dira.

*Tal y como se establece en el Acuerdo de Consejo de Gobierno sobre la seguridad, se han realizado una reunión del Comité Técnico de Seguridad (Comité GureSeK) y otra reunión del Comité de Seguridad Corporativa.*

*Se ha publicado la información y tarifas (Encargo General y Resoluciones de tarifas) correspondientes al modelo de relación entre el Gobierno Vasco y la Sociedad Pública EJIE, basado en Encargos.*

*Se ha organizado actividades del Gabinete Tecnológico de la DIT para los Departamentos y Organismos Autónomos: 6 Seminarios de Nuevas Tecnologías.*

*Se han publicado 4 números del Boletín divulgativo sobre Nuevas Tecnologías Aurrera.*

*Se ha realizado la actualización de los estándares tecnológicos del Gobierno Vasco (trabajos de actualización y mantenimiento), y se ha realizado el mantenimiento de la información en la Web y en las redes sociales de la Oficina de Software Libre denominada SALE.*

*Se han evacuado un total de 162 Informes (58 sobre Pliegos de Bases Técnicas, 100 sobre Encargos y 4 informes de otro carácter) en materia informática.*

*Se han presentado más de 870 peticiones de servicio solicitadas por los Departamentos y Organismos Autónomos a través de las herramientas normalizadas para validar (se han rechazado del orden de 70, validando el resto).*

| **PROGRAMA** | ***PROGRAMA*** |
|---|---|
| 1215 BERRIKUNTZA ETA ADMINISTRAZIO ELEKTRONIKOA | *1215 INNOVACIÓN Y ADMINISTRACIÓN ELECTRÓNICA* |
| **ARDURADUNA** | ***RESPONSABLE*** |
| 02 GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNUA | *02 GOBERNANZA PÚBLICA Y AUTOGOBIERNO* |
| ERAKUNDE HARREMANETARAKO SAILBURUORDEA | *VICECONSEJERO DE RELACIONES INSTITUCIONALES* |

## HELBURUA

1. HERRI ADMINISTRAZIOAN GARDENTASUNA, PARTE-HARTZEA ETA LANKIDETZA SUSTATZEA

2. HAINBAT BIDE ERABILIZ (AURREZ AURREKOA, TELEFONOA, INTERNET...) ESKURA DAITEZKEEN KALITATEZKO ZERBITZUEN ESKAINTZA GARATZEA

3. ADMINISTRAZIO-KUDEAKETAN EFIZIENTZIA HOBETZEA; HORRETARAKO, ERAKUNDEA EGOKITU, PROZEDURAK ERRAZTU ETA TEKNOLOGIA EGUNERATU BEHAR DA

4. ADMINISTRAZIOAN BERRIKUNTZA SUSTATZEA, HERRITARRAK ETA PROFESIONAL PUBLIKOAK SARTUZ POLITIKA ETA ZERBITZU PUBLIKOEN DISEINUAN, KUDEAKETAN ETA EBALUAZIOAN

## *OBJETIVO*

*1. PROMOVER LA TRANSPARENCIA, LA PARTICIPACIÓN Y LA COLABORACIÓN EN LA ADMINISTRACIÓN PÚBLICA*

*2. DESARROLLAR UNA OFERTA DE SERVICIOS DE CALIDAD Y ACCESIBLE POR DIFERENTES CANALES (PRESENCIAL, TELÉFONO, INTERNET)*

*3. MEJORAR LA EFICIENCIA EN LA GESTIÓN ADMINISTRATIVA, ADECUANDO LA ORGANIZACIÓN, IMPLANTANDO NUEVOS MODELOS DE GESTIÓN Y REALIZANDO UN USO INTELIGENTE DE LA TECNOLOGÍA*

*4. PROMOVER LA INNOVACIÓN EN LA ADMINISTRACIÓN INVOLUCRANDO A LA CIUDADANÍA Y A LOS PROFESIONALES EN EL DISEÑO, LA GESTIÓN Y LA EVALUACIÓN DE LAS POLÍTICAS Y DE LOS SERVICIOS PÚBLICOS*

## BETETZE MAILA

**1. HERRI ADMINISTRAZIOAN GARDENTASUNA, PARTE-HARTZEA ETA LANKIDETZA SUSTATZEA**

2017an puntuazioa mantentzea lortu dugu autonomia-erkidegoen gardentasun-indizean, 100 puntu 100etik, eta gehieneko maila kualitatiboa lortu dugu ebaluazio kualitatiboan, A maila. Informazioaren argitalpenak kalitate-maila altukoak dira, erraz eta aldizkakotasunez eskura daitezke, deskripzio-maila egokiarekin eta, hautaturiko adierazleen arabera, formatu berrerabilgarriak erabiltzen dira gehienetan.

Informazioa begiratzeko eskubidearen eskaeren kopurua:

Guztira, 57 eskaera egin dira. 37 kasutan, erabateko irispidea eman zen; 8 ez ziren onartu; 5 deribatuak; 3 irispide partziala; 2, eskatzaileak atzera egiteagatik; 2 espediente baliogabeak.

## *GRADO DE CUMPLIMIENTO*

***1. PROMOVER LA TRANSPARENCIA, LA PARTICIPACIÓN Y LA COLABORACIÓN EN LA ADMINISTRACIÓN PÚBLICA***

*En 2017 hemos mantenido la máxima puntuación en el índice de transparencia de Comunidades Autónomas, con 100 puntos sobre 100 y en la evaluación cualitativa se ha alcanzado el máximo nivel cualitativo A: Se publica la información con un muy alto nivel de calidad, de forma fácilmente accesible, con un carácter periódico y un adecuado carácter descriptivo, siendo datos publicados en formatos reutilizables en la generalidad de los indicadores seleccionados.*

*Número de solicitudes de derecho de acceso a la información recibidas:*

*En total han sido 57 solicitudes. En 37 se dio acceso total a la información, 8 fueron inadmitidas, 5 derivadas, 3 acceso parcial, 2 desistimiento del solicitante, 2 expedientes anulados.*

2017an, Informazio Publikoa Begiratzeko Euskadiko

Batzordea bermatu da informazio publikoa begiratzeko eskubidearen eskaerei arreta ematen dien organo moduan

Eusko Jaurlaritzako Gardentasun web orrialdean, 91.239 orri ikusi dira 2017an, 2016 urtekoa ia hirukoiztuz; 35.707 orri ikusi ziren eta.

2017an Elkarlan sarien hirugarren edizioa egin da, balio publikoa sortzen duten herritarren ekimenak saritzeko.

*En 2017 se ha consolidado el funcionamiento de la*

